


Legazpi-Segura, antzinako bideetatik



IBILBIDEKO GUNE NAGUSIAK:

1. **Legazpi**: hiribarrua
2. **Olaberri** (Legazpi): Antzina burdinola, kartoi fabrika, irin fabrika, errota...
3. **Motxorro** (Legazpi): Legazpitik Segurarako bide zaharra ez zen Motxorrotik igarotzen. Olaberritik aurrera ezkerretera gora egiten zuen Ermuño aldera. Orduan ez zegoen trenbiderik. Bide honi **Olaberriko peabidea** ere esaten zitzaion, hain zuzen, Mutiloako meatzeak Olaberriko burdinolarekin lotzen zituelako.
4. **Ermuño** (Legazpi): Txorroneako Floren etxola berritzen ari den lekua.
5. **Zepadi** (Legazpi): Mendietako burdinolen bi zepadi daude leku honetan, pinu artean, horregatik bere izena.
6. **Makatzagaetxeberri** (Legazpi): Bide zaharra Makatzagaetxeberriko mandioko pasadizoaren azpitik igarotzen zen.
7. **Kortaerreka** (Legazpi): Erreka hau antzinako Ibatate korta edo eremu biribilean sortzen da, horregatik Korta+erreka.
8. **Makatzaga** (Legazpi): Antzinako baserria.
9. **Zabaleta** (Legazpi): Arriantxo sasi-mediku ospetsuaren jaiotetxea.
10. **Mendibil** (Legazpi): Mendibilgo harrobiko harriarekin eta Aizpuruko harrobiko harriarekin (aireko kabletan ekartzen zen) Urtatzako urtegiko pareta egin zen 1955. urte inguruan.
11. **Aztiriko benta** (Gabiria): Oraingo Santa Marina elizak 130 urte dauzka. Santa Marina eliza zaharra askoz beherago zegoen, Estanda baserritik behera.

12. **Ariztieder** (Gabiria): Ariztiederretik Korostolarainoko bide zaharra (Mañestegietxeberri baserritik behera) oraingo errepidearen aldamenetik zen eta ez dago garbia. Hori dela eta, Legazpi-Segura berria Aizpurutik egingo da.
13. **Iturgorri** (Mutiloa): Legazpi, Gabiria, Mutiloa eta Zeraingo iturri eta lur askok metala dute. Horregatik “gorri” adjetiboa maiz ikus dezakegu izenetan.
14. **Lezandiaga** (Mutiloa): Gaur egun sakon honetan pinudia nagusitzen bada ere, leize handiak ditu han-hemenka. Horregatik bere izena.
15. **Aizpuru** (Mutiloa-Zerain): Hainbat urtetan itsasontzi baten kabina egon zenez, legazpiar askok “Barkue” izenez ezagutzen dute leku hau.
16. **Ollargain** (Mutiloa): Legazpik hemen dauden meatzeei sor die mendeetan izan duen garapena.
17. **Belengo portala** (Mutiloa-Zerain): Izen zelebren hori ez dakigu nondik sortua den. Kontua da bertan egoten diren ehiztariak horrela esaten diotela.
18. **Goia** (Zerain): Etxe hori Aizpegoikoetxe deitzen zaio gaur egun. Goia deituraren sortetxea da.
19. **Aizpee goikoa** (Zerain): Aizpeeko Goibarria bost baserrik osatzen dute: Goikoetxe, Zirardi, Txoriztegi, Telleriñe, Garro eta Gaztelu. Historia handiko auzoa da, mila urte baino gehiago dituen. Gaztelu baserriaren izenak garbi adierazten digu gotorleku bat izan zela antzina.
20. **Arkurutza** (Zerain): Arkurutza izeneko parajeen bi elizbide elkartzen ziren, Zeraingo elizatik Goibarrion zahoana, bata, eta Mantxolara zahoana, bestea. Horregatik harrizko gurutze bat zegoen.
21. **Korostola** (Zerain-Mutiloa): Errepideak errebuelta egiten duen parajea.
23. **Igartzako mote** (Zerain-Mutiloa): Legazpin “mote” izenik ez badago ere Goierrin normala da mendixka adierazteko.
24. **Inurritegi** (Zerain): Etxalde garrantzitsua zen antzina, burdinola eta guzti. Bertako deitura Legazpi aldera asko zabaldu zen.
25. **Arane** (Zerain): Arane baserria “haran” zoragarri batean dago (hortik bere izena, seguruenik) eta bertatik Segurarekin lotuko duen galtzada sortzen da.
26. **Zerain**: hiribarrua
27. **Bidarte** (Zerain): Ostatu ondoan dagoen Errerone baserritik behera galtzadak jarraitzen du eta Bidarte baserri hutsetik igarotzen da.
28. **Zabalegi** (Zerain): Baserri honen aldamenean antzinako hilarria dago, hildako baten omenez jarria. Garai batean ugariagoak ziren horrelakoak.
29. **Zeraingo portala** (Segura): Galtzadari jarraituz Segurako atari handi batera iritsiko gara, Zeraingo portalera.
30. **Segura**: hiribarrua



Legazpi, 2008ko maiatzaren 18an